
Hautaketa prozesuak:

TEST PSIKOTEKNIKOAK



2024ko urria

Telefonoa: 848 42 45 00
orientacion@navarra.es
https://www.navarra.es/eu/enplegua

SERVICIO NAVARRO DE EMPLEO
NAFAR LANSARE


Hautaketa prozesuak: TEST PSIKOTEKNIKOAK

Edukia

1. Hautaketa-prozesua 2
   Zer dira test psikoteknikoak? 2
2. Test psikoteknikoak 3
   2.1. Adimen orokorraren edo arrazoiketa logikoaren testa 3
   2.2. Zenbakizko gaitasunaren testa 4
   2.3. Zenbakizko arrazoiketaren testa 5
   2.4. Ahozko gaitasunaren testa 7
   2.5. Hitzezko logikaren edo arrazoibidearen testa 8
   2.6. Arreta, gaitasun burokratiko edo kontzentrazioaren testa 10
   2.7. Oroimenaren testa 11
   2.8. Mekanikaren testa 8
   2.9. Test espaziala 11
3. Test psikoteknikoak prestatzeko aholkuak 14
4. Probaren egunerako aholkuak 15
5. Baliabideak 16

1. Hautaketa-prozesua

Hautaketa-prozesuaren bidez, erakunde edo enpresa errekrutatzaile edo hautatzaile batek, langileak kontratatu behar dituenean, eskakizunak zehazten ditu, enplegu eskaintzak zabaldu eta **hautaketa-probak ezartzen ditu.** Proba horiek egiten dira aurkezten direnen artean pertsonarik egokiena hautatzeko.



Zer dira test psikoteknikoak?

Test psikoteknikoak **ebaluazio-tresnak** dira, hautaketa-prozesuetan erabiltzen direnak, adimen orokorraren maila edo gaitasun jakin bat neurtzeko.

Helburu nagusia da **ebaluatzea** lanpostua modurik egokienean betetzeko beharrezkoak diren **gaitasun intelektualak**.

2. Test psikoteknikoak

2.1 Adimen orokorraren edo arrazoibide logikoaren testa

- **Zer neurtzen dute:** informazioa prozesatzeko eta ondorio logiko batera iristeko gaitasuna ebaluatzen dute, aurreko ezagutzak eduki beharrik gabe. Gainera, ereduak identifikatzeko, problemak ebazteko eta logikan oinarritutako erabakiak hartzeko trebetasuna neurtzen dute.

- **Proba motak:**
  - **Serie logikoak:** irudi geometrikoen, zenbakien edo letren sekuentziak osatzea, logika bati jarraituz.

ADIBIDEA

"Proposatzen direnen artean, zein zenbakirekin jarraituko luke hurrengo serieak?"

30 33 36 39 42 45

a) 49 b) 47 c) 48 d) 50

Soluzioa: c) Aldi bakoitzean 3 gehituz doa.

  - **Logika ariketak:** aurretik emandako premisa batzuetatik ateratako ondorioak lortzea.

ADIBIDEA

"Katu guztiak animaliak dira. Animalia batzuk jostalariak dira. Beraz, zer esan dezakegu katuei buruz?

a) Katu guztiak jostalariak dira.
b) Katu batzuk jostalariak dira.
c) Animalia guztiak katuak dira.
d) Animalia batzuk katuak dira.

Soluzioa: b) "Katu batzuk jostalariak dira"

- **Venn-en diagrama:** zirkuluak edo beste irudi batzuk erabiltzen ditu, gainjartzen direnak, bi elementu multzoren edo gehiagoren arteko erlazio logikoak ilustratzeko.

2.2 Zenbakizko gaitasunaren testa

- **Zer neurtzen dute:** zenbakiekin eta datuekin lan egiteko gaitasuna, arazo kuantitatiboak ebazteko.
- **Proba motak:**
  - **Kalkulu sinpleak:** batu, kendu, biderkatu, zatitu.

ADIBIDEA

"Ebatz itzazu eragiketa hauek:

23,7 + 38,2 + 80,3 = "

a) 103, 2 b) 230,2 c) 240,2 d) 142,2

Erantzuna: d) 142,2.

  - **Aplikazio ariketak:** kalkuluak aplikatuko liratekeen eguneroko egoerak: aurrekontuak, deskontuak...
  - **Oinarrizko matematikak:** portzentajeak, proportzioak, etab.

ADIBIDEA

"Giza gorputzaren % 60 ura da. Nire masa 65 kilokoa bada, zenbat kilo ur dira?"

Erantzuna: 39 kg ur dira (65*60/100).

2.3 Zenbakizko arrazoiketaren testa

- Zer neurtzen dute: zenbakiekin lan egiteko, datuak interpretatzeko, patroiak identifikatzeko eta oinarrizko problema matematikoak, aritmetikoak edo aljebraikoak ebazteko trebetasuna.
- Proba motak: grafikoak edo taulak interpretatzea, grafikoak eta zenbakizko sekuentziak, datuekin lan egiteko gaitasuna, zenbakizko informazioan oinarritutako erabakiak hartzea, aritmetikako problemak eta portzentajezko kalkuluak ebaztea.

ADIBIDEA

"Bezero batek hasierako prezioa 500 eurokoa duen produktu bat erosi du, baina honako deskontu hauek aplikatzen zaizkio:

- % 20ko hasierako deskontua.
- Deskontu hori aplikatu ondoren, prezio berriari % 5eko deskontu gehigarria egin zaio.

Galdera: Zein da bezeroak ordaintzen duen azken prezioa?"

a) 340 euro b) 380 euro c) 300 euro d) 280 euro

Erantzuna: Azken prezioa b) da: 380 euro.

LABURPENA

Ezaugarria	Arrazoiketa logikoaren testa	Zenbakizko gaitasunaren testa	Zenbakizko arrazoiketaren testa
Testaren helburua	Arrazoiketa abstraktua eta eredu logikoak	Kalkuluak egiteko trebetasunak, trebetasun matematikoak	Zenbakiekin interpretatu eta arrazoitzeko gaitasuna
Zer neurtzen dute?	Patroiak identifikatzeko eta problema abstraktuak logikaz ebazteko gaitasuna	Zenbakiak maneiatzeko, kalkulu azkarrak egiteko eta problema matematikoak ebazteko gaitasuna	Zenbakiak erabiliz arrazoitzeko gaitasuna, problemak arrazoiketa logikoz ebazteko, sekuentziak interpretatzeko gaitasuna
Ebatzi beharreko arazo motak	Figurak, sekuentziak, erlazio logikoak	Kalkuluak, eragiketak, oinarrizko matematikak	Zenbakizko sekuentziak eta arazo kuantitatibo konplexuak
Adibideak	Figuren sekuentzia logikoa osatzea	Kalkulu matematikoak ebaztea edo datuak interpretatzea	Patroiak identifikatzea zenbakizko sekuentzietan

2.4 Ahozko gaitasunaren testa

- Zer neurtzen dute: hizkuntza idatzia zuzen eta erraz erabiltzeko eta ulertzeko gaitasuna.
- **Proba motak:**
  - Sinonimoak eta antonimoak: antzeko edo kontrako esanahia duten hitzak identifikatzea.

ADIBIDEA

"Eman ezazu *Ausarta* hitzaren antonimoa"

a) a) Koldarra b) Adoretsua c) Zalantzatia

Erantzuna: a) Koldarra

  - **Berridazketa**: emandako testua edo aipua parafraseatzea.
  - Osatu gabeko perpausak: osatu perpausak hitz egokienarekin.

ADIBIDEA

"Irakurri arretaz testua eta erantzun ariketari, hutsune bakoitza bete dezakeen eta testuaren edukiari hobekien egokitzen zaion hitzarekin edo esapidearekin"

"Eta giza asmamenaren gauza da, askatasuna irrikatzen baitu eta oso gutxitan _____ dirua irabaztea, komunikabide independente berriak orbitan jartzeko bideak aurkitzea."

a) ebazten baitu

b) errefusatzen baitu

c) inportatzen baitzaio

d) besterentzen baitu

Soluzioa: b) errefusatzen baitu

2.5 Hitzezko logikaren edo arrazoibidearen testa

- **Zer neurtzen dute:** irakurriaren ulermena, testuen analisia, hiztegia eta hitzezko komunikaziorako trebetasunak ebaluatzen dituzte. Baliagarriak dira idatzizko informazioa interpretatzeko eta harekin lan egiteko, ondorioak ateratzeko eta modu kritikoan arrazoitzeko trebetasuna neurtzeko.
- **Proba motak:**
  - **Testuak ulertzea**: testu bat irakurtzea eta haren edukiari buruzko galderak erantzutea.
  - **Hitzezko analogiak**: hitzen edo esaldien arteko erlazioak identifikatzea.
  - **Hitzezko dedukzioa:** testu bat irakurtzea eta zenbait galderari erantzutea. Galdera horiek testuari buruz pentsatzera edo hausnartzera bultzatzen zaituzte; izan ere, informazio hori ez da berariaz aipatzen, baina aditzera ematen da.

ADIBIDEA

"Ariketa honetan, bukatu gabeko esaldi gramatikalak daude. Esaldi bakoitza bukatu behar duzu, aukeran ematen dizkizugun lau hitzen artean hautatuta; lortu behar duzuna da lehen hitz-parearen artean dagoen erlazioa bigarren hitz-parean ere bete dadin:"

"ELURRAren parea ZURIA bada, zein da IKATZAren parea?"

a) Minerala b) Zilarra c) Beltza d) Urdina

Erantzuna: c) Beltza

LABURPENA

Ezaugarria	Hitzezko arrazoiketaren testa	Hitzezko gaitasunaren testa
Testaren helburua	Idatzizko informazioarekin aztertzeko eta arrazoitzeko gaitasuna.	Hizkuntzaren eta hizkuntza-trebetasun orokorren erabilera.
Zer neurtzen dute	Idatzizko informaziotik edo testuetatik ondorio logikoak ateratzeko gaitasuna.	Hizkuntza erabiltzeko maila orokorra, bai idazketan, bai irakurketan.
Ebatzi beharreko arazo motak	Ideien sekuentzia logikoak, ulermena eta interferentziak.	Hiztegia, ortografia, gramatika, irakurriaren ulermena.
Adibideak	Ondorio batek testuaren premisei logikoki jarraitzen dien zehaztea.	Perpausak osatzea hiztegi egokiarekin, gramatika akatsak zuzentzea.

2.6 Arreta, gaitasun burokratiko edo kontzentrazioaren testa

- **Zer neurtzen dute:** arreta eta kontzentrazioa luzaroan eta distrakziorik gabe mantentzeko gaitasuna, horrek gauzak xehetasunez behatzeko gaitasuna ekartzen baitu.

- **Proba motak:**

  - Zaintza-ariketak: zenbaki edo sinboloen serie bat monitorizatzea, aldaketak edo patroiak detektatzeko, kopietan akatsik dagoen berrikustea, sinbolo edo irudi berdinak kontatzea...


  - Sailkapen-lanak: objektuak edo informazioa irizpide espezifikoen arabera sailkatzea akatsik gabe, kodetzea.

  - Jarraipen-ariketak: arreta mantentzea lan errepikakorren sekuentzia batean.

ADIBIDEA

"Zenbat figura dira ereduko figurak bezalakoak?"

Ereduko figurak 



a) a) 9 b) 10 c) 11 d) 12

Erantzuna: b) 10

2.7 Oroimenaren testa

- Zer neurtzen dute: informazioa epe labur edo ertainean atxikitzeko eta gogoratzeko gaitasuna.
- **Proba motak:**
  - Hitz-zerrendak: hitz-zerrenda bat memorizatu eta gero gogoratzea.
  - Zenbakiak oroitzea: laburki aurkeztutako sekuentziak gogoratzea.
  - Parekatzeko ariketak: irudi- edo hitz-pareen kokapena gogoratzea.

EPE LABURREKO MEMORIAREN

Hamar hitzeko zerrenda erakusten da 30 segundoz:

katua, kotxea, lorea, urdina, mahaia, arkatza, erlojua, zuhaitza, telefonoa, liburua.

Denbora amaitu ondoren, zerrenda bistatik kendu eta, ezer begiratu gabe, jatorrizko zerrendatik ahalik eta hitz gehien gogoratu eta idazteko eskatuko da. Izan daiteke denbora muga bat, adibidez, minutu bat, hitzak idazteko.


2.8 Gaitasun mekanikoaren testa

- Zer neurtzen dute: makinen eta erreminten funtzionamenduari buruzko ulermena, lege fisikoen aplikazioa (indarra, oreka, energia, abiadura, etab.) eta osagai mekanikoen interakzioa hainbat egoeratan.

- **Proba motak:**
  - Fisikako ariketak: mekanikarekin lotutako problemak ebaztea: indarrak, mugimendua, etab.
  - Fluxuen diagrama: makinak edo sistemak nola funtzionatzen duten interpretatzea. Irudiak edo marrazkiak, hala nola palankak, poleak, engranajeak: ikusi nora mugitzen diren, puntu jakin batean indar bat egiten badugu.
  - Printzipio mekanikoei buruzko galderak: tresnen eta makinen gaineko ezagutza ebaluatzen duten galdetegiak.

ADIBIDEA

"Gurpil horzdun hauetako zein mugituko da abiadura handiagoan?"



a) a) A b) B c) C d) D


Soluzioa: d) Erradiorik txikiena duen gurpil horzdunak izanen du abiadura handiagoa.

2.9 Test espaziala

- Zer neurtzen dute: objektuak angelu edo errotazio desberdinetatik nola ikusiko liratekeen irudikatzeko gaitasuna; diagramak edo mapak interpretatzeko orientazio espaziala eta hiru dimentsioko irudiak buruz biratzeko edo inbertitzeko trebetasuna.
- **Proba motak:**
  - Irudien errotazioa: irudi bat espazioan biratuz gero nola ikusiko litzatekeen irudikatzea; errotazio hori laua izan daiteke (objektua altxatu gabe) edo hiru dimentsiokoa.
  - Irudiak gainjartzea (kolore edo forma desberdinak erabiliz).
  - Formak pareka jartzea: orientazio desberdinetan baliokideak edo antzekoak diren formak identifikatzea.
  - Mapak eta planoak: informazioa mapa edo diagrama tridimentsionalen bidez irakurtzea eta ulertzea.

GAINJARTZEAREN ADIBIDEA

"Zein irudi eta zein ordenatan daude gainjarrita?"



a) 1, 5, 3 b) 1, 5, 4, 2 c) 1, 4, 2 d) 4, 1, 2

Soluzioa: c) 1, 4, 2

3. Test psikoteknikoak prestatzeko aholkuak

- Gogoratu oso garrantzitsua dela erregulartasunez praktikatzea, test psikoteknikoen formatuarekin ohitzeko. Lineako baliabide askok simulazioak egiteko aukera ematen dute, adibidez, psicotest.net edo psicoactiva.com. Praktikatzeak zure erantzuteko denbora hobetzen eta seguruago sentitzen lagunduko dizu.
- **Egin itzazu simulazio kronometratuak,** zure denbora ongi kudeatzen ikasteko eta ez uzteko probarik bukatu gabe, edo denbora berean galdera gehiago erantzutea lortzeko.
- **Identifikatu zer arlotan hobetzeko** praktikatu behar duzun gehien. Adibidez, matematiketan ez bazara bereziki trebea, eman denbora gehiago zenbakizko testak egiten.
- **Saiatu azkar erantzuten**, baina zehaztasuna galdu gabe.
- **Egon lasai**. Denboraren eta presioaren kudeaketa ebaluazioaren parte dira. Lasai egoten ikasteak arretari eusten lagunduko dizu.
- **Har ezazu atseden probaren egunaren aurretik**. Zure garunak atseden hartu behar du bere onena emateko. Saiatu aurreko gauean ongi lo egiten, eta ez egin test psikoteknikorik proba egin aurretxoan.
- **Ikasi zeure akatsetatik**. Praktikatzen duzunean, berrikusi oker erantzundako galderak, ulertzeko zergatik huts egin duzun. Analisi horrek lagunduko dizu hobetzen eta etorkizunean akats berak egitea saihesten.

4. Probaren egunerako aholkuak

- Argitu burua hasi aurretik eta saihestu distrakzioak.
- **Irakurri jarraibideak arretaz.** Proba hasi aurretik, ziurtatu ongi ulertzen duzula zer eskatzen zaizun testaren atal bakoitzean, akatsik ez egiteko. Proba bakoitzak arau desberdinak izan ditzake.
- **Kudeatu zure denbora:** Test batzuek denbora mugatua dute. Ez eman denbora gehiegi galdera bati erantzuteko: erantzun bat ez badakizu, jarraitu aurrera. Seinale bat utz dezakezu hutsik uzten dituzun galderetan, geroago itzultzeko, denbora geratzen bazaizu, paperezko formatuan bada.
- **Erantzun lehenik ziur zauden galderei.** Galderaren baten erantzuna ez badakizu, ez galdu denborarik eta joan hurrengora. Ez pentsatu proba bukatzeko zenbat denbora geratzen den, garrantzitsuena da ahalik eta erantzun gehien zuzen erantzutea.
- Akatsek puntuazioa kentzen badute , zure emaitza seguruagoa izanen da zalantzazko galdera erantzun gabe uzten baduzu.
- **Izan jarrera positiboa:** Galdera zail batekin topo egiten baduzu, ez zapuztu. Egon lasai, hartu arnasa sakon eta segi aurrera.
- Saiatu erlojuari etengabe ez begiratzen eta ez kezkatu besteek egiten dutenaz. Inork baino lehenago amaitzeak ez du esan nahi onena izatea.
- Urduri jartzen bazara denbora aski ez dizulakoan: hartu arnasa sakon, izan konfiantza zeure buruarengan eta eman zeure onena; gogoan izan zuzen erantzundako galderak soilik puntuatuko dituztela. Batzuetan kontua ez da galdera guztiei erantzutea, ongi erantzutea baizik.

5. Baliabideak

- Test psikoteknikoen motak
  - https://www.hacertest.com/psicotecnicos/examenes/
  - https://ci-training.com/test-entrenamiento.php
  - https://www.psicoactiva.com/
  - https://psicotest.net/
- Gaitasun-probak: https://www.opositor.com/hacer-test?oposicion=psicotecnicos-oposiciones
- Ariketa ebatziak, azalduta: https://www.youtube.com/channel/UCr10EEr7B5nVu04GXReCe0Q
- Test psikoteknikoak ebazteko gida #1. https://www.youtube.com/watch?v=C7VUeBCgAe0
- Test psikoteknikoak ebazteko gida #2 https://www.youtube.com/watch?v=7g5_NS2cRDM

Prestatu zaitez, erakutsi zure potentziala eta gainditu erronka bakoitza.





Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU

GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE TRABAJO
Y ECONOMÍA SOCIAL

Plan de
Recuperación,
Transformación
y Resiliencia

SERVICIO PÚBLICO
DE EMPLEO ESTATAL
SEPE

SISTEMA
NACIONAL DE EMPLEO

Centros de Orientación,
Emprendimiento, Acompañamiento
e Innovación para el Empleo

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

SERVICIO
NAVARRO DE
EMPLEO

NAFAR
LANSARE